



adats 'ilajea, mototsa'	«Esku handi bezain gozo batez egin zidan fereka adatsetan .»	(22)
agi denez 'antza'	« Agi denez , bada, zorigaitza ez da etortzen beti bakarrik.»	(112)
ahaide 'senidea'	«Haren berotasuna ahaide , negurik hotzenean.»	(87)
ahuntzaren aldean 'ahuntzarekin konparatuta'	«...pottokak, ahuntzaren aldean ez du asunik jango sekula.»	(80)
aitzitik 'alderantziz'	« Aitzitik , noiznahi gaztearen oldarra erakusten zuen kaligrafia indartsuak, bere egikeran.»	(11)
aiurria 'izaera'	«Jabetzen ari nintzen Hendaikoaren izaeraz eta aiurriaz .»	(36)
aldarte 'umorea, gogaldia'	«Hartzen zaitu bere indarrak eta jaso zaitzake airean, aldaraziz daukazun astuntasuna, aldarte eta begirada...»	(7)
amiamoko 'zikoina'	«...udaberriko lehen amiamoka bistaratzen ikusten dituen.»	(16)
andana 'mordoa, piloa'	«Soldadu espainar andana hura gure etxera etorri zen.»	(31)
antxeta 'hegaxuria, kaioa'	«... antxetek , kurliskek eta karioek egiten dakitenaren antzera...»	(8)
antzirudi 'itxura, irudi'	«T letra guztiek gurutze edo ezpata motzaren antzirudia ematen zuten.»	(11)
apailatze 'apaindua'	«Erdipurdiko idazlearen lana baino ez dudala egin nik liburu honetan. Apailatze soila, alegia.»	(12)
apatx 'azkazala'	«Bideetako zaldi- apatxen arrastoei behatzen nien eta noizkoak ziren antzematen ikasi nuen.»	(44)
arasa 'ontzitegia, armairua'	«Aulki, arasa , pitxer eta edalontzirik ez zela geratu osorik, ez eta ere zahagirik zulatu gabekorik.»	(32)
arrangura 'pena, atsekabea'	«...jakin baitzekien pertsonak bere baitan dituen arranguretako batzuk erne bizi beharrekoak direla, pozak bezainbestean.»	(121)
arras 'guztiz, oso'	«...ni baino arras gazteago denak ere.»	(15)
arre 'nabarra, grisa'	«...bi begi biziak guztiz arreak , sutondoan lizarrak uzten dakien errautsa bezalakoak.»	(19)
artega 'urduri'	«...jende guztiari behako artega bat egin gabe lehenik.»	(20)
asaldatu 'zerbaitek urduritu, erne jarri'	«...guztiz bainengoen gizon haien etorreraz kitzikaturik eta asaldaturik .»	(23)
ataka 'estualdia / pasabide estua'	«Martin zen egia hutsa esanez jendarteko ataka larri hartatik atera ninduen.»	(103)
auzapez 'alkatea'	«Hendaiko auzapezaren beraren setakeriari esker, salbuespena egin zuten nirekin Akademia Txit Gorenekoek...»	(8)
azpiak egin 'abereen lekua garbitu eta prestatu'	«... azpiak egiteko iratzea garraiatzen, noiznahi josten edo etxea goitik behera garbitzen.»	(42)
aztoramen 'asaldura'	« Aztoramena haziz eta haziz zihoan, otsoen artean ehiza harrapatutakoan bezala.»	(99)
baduke 'edukiko du'	«Bitartean zurekin baduke zer ikasirik franko.»	(89)



bailitzan 'balitz bezala'	«...gorputz guztizko arroparen gainetik zegoen beste geruza bat bailitzan .»	(19)
...baten kariaz 'baten kausaz'	«...sekula aipatu gabeko tratu ezkutukoren baten kariaz .»	(20)
behinena 'nagusia, handia'	«Pelot kapitainaren eskifaiakoa izateko neukan aukerarik behinena .»	(86)
berme 'garantia'	«...izan bedi bermea izkiriatu berri ditudan hitz hauek neurri egokian sinesteko.»	(94)
betondo 'bekokia'	« Betondoan , aurpegiaren zurbilean eta isilpeka egiten zituzten ez tul minberetan sumatzen zitzaion askori.»	(52)
biek ala biek 'bai batak, bai besteak'	«Zarataka ziharduten biek ala biek , batak besteari nork sutuago erantzungo.»	(110)
doilor 'lotsagabea, zekena'	«Giharra zen baina dotorea. Hitz bakarrekota eta doilorra .»	(19)
ediren 'aurkitu, idoro'	«Haren umorea eta zalapartarako gogoia ere ez dituk beste nehereengan edirenen .»	(105)
erauntsi 'denboralea, zaparrada'	«...eta juxtu zaparrada handi bat erauntsika eta ufaka hasi baino apur bat lehenago.»	(45)
ernegatu 'sumindu, haserretu'	«Gutxi genekien orduan zenbateraino zizkigun gure bizitzak ernegatuko .»	(91)
erridau 'kortina'	«...ke guztiaren usaina itsatsita zegoela hormetan, gortina eta erridauetan , ohe gaineko tapakietan.»	(10)
estai 'oina pisua, solairua'	«...bi estaitan jarririk, zurezko eskailera eta korridore eta guzti...»	(9)
ez zen entzuten ahal 'ezin entzun zitekeen'	«...ibaiko uraren joana baizik ez zen entzuten ahal .»	(35)
ezin kontatuko dut 'ezin izango dut kontatu'	«... ezin kontatuko dut nik orduan sentitu nuenik.»	(116)
ezpal 'printza, zatia'	«Nire aiurri aldakor honen ezpalak badaki zein enborretatik sortutakoa den.»	(46)
finigaitz 'amaitezina, bukatu ezina'	«Kurritu eta ibili nahi nituen itsasoak eta mundua bere borobiltasun finigaitzean .»	(17)
galbahe 'bahea'	«...kontakizunei galbahea pasatuz, gizon hari buruzko albiste bakoitza jasotzen nuen urrezko pipita bailitzan.»	(125)
goiburu 'leloa, lema'	«EZ IKUSI, EZ IKASI izan zen haren goiburua eta bizitzeko akuilu nagusia.»	(10)
gurbitz 'kurkuiza'	«...ezkutaleku hartatik begira, gurbitzaren pinportak bezala bi begiak jarrita.»	(33)
haren askatzeko 'hura askatzeko'	«...preso zegoela oraindik Plymoutheko gazteluan eta eginen zutela bidea haren askatzeko .»	(71)
hazka egin 'arraskatu'	«Txakurkume bati bezala egin zidan hazka buruan hiru gizonetan lodienak...»	(21)
hegada 'hegaldia'	«Ezerk ez zidan debekatuko hegaririk , ezerk ez ninduen lotuko ibai gaineko benta zahar hartara.»	(38)
hestebete 'enbutidoa'	«Hango sutan ez zen falta egurrik, ez sabaian edozein bazterretan zintzilikatutako hestebeterik .»	(66)
hits 'tristeia, goibela'	«...gogorra bare eta hitsa alai.»	(7)



hurko 'hurbila, hurrekoa'	«Hark zeukan hurkoarenganako mirarik ez dut nik ikusi ibili naizen paraje guztietan.»	(87)
hutsal 'alferrekoa, eskasa'	«...garai (...) guztiak hutsalak dira hark bizi izan zituenen aldean.»	(12)
ihardetsi 'erantzun'	«Baina kapitainak ez zuen deus ihardetsi eta beha segitu zuen...»	(22)
ikusteke 'ikusi barik'	«...halakorik ikusteke nengoen Hiribarrenekin jarri artean.»	(95)
intziri 'hasperena, zizpurua'	« Intziriren bat edo beste irten zen Martinen eztarritik.»	(114)
irauli 'azpikoz gora jarri'	«... irauli egingo nuen bizitzak sehaska beretik niretzako erabakita zekarrena.»	(18)
irmo 'sendoa'	«Lehenagotik ere irmoa zen erabakia geratu zen.»	(102)
isekatu 'adarra jo'	«Jean Daspilcouette modu honetan isekatzen duenak ez duela aurkitzen ahal hemendik Baionarat bitartean atseginik.»	(90)
isilpeko 'ezkutukoa, sekretua'	«Ondo gorde beharko duzun isilpeko bat kontatuko dizut.»	(117)
kaiera 'koadernoa'	«...bazter batean erdi erorita zeuden kaiera edo koaderno apal batzuetara.»	(11)
kalapita 'algara, astrapala, zalaparta'	«...esnatzetik oheratzera arteko kalapita eta saltsa beroa.»	(8)
kalapita 'iskanbila'	«Muga izateak beti dauka galera horixe, bateko eta besteko borrokak, gerlak, kalapitak eta liskarrak beti bertatik hasten direla.»	(84)
karia 'kausa, arrazoia'	«Martin lotsaturik zen osabaren kariaz .»	(125)
karkax 'gorroa'	«...erantzun zion, ez tul txiki eta karkaxen artean.»	(62)
kausitu 'topatu, idoro, eriden'	«...galtzak egiteko oihal hain zabalik nongo azoka edo dendatan ote zuen kausitzen galdetu nion neure buruari.»	(22)
kitzikatu 'asaldatu, sutu'	«...guztiz bainengoen gizon haien etorreraz kitzikaturik eta.»	(23)
kizkurdura 'kiribildura'	«...ordurara arte elbarrituta eduki ninduen kizkurdura lotsagarritik zutituz.»	(35)
kordokatu 'kulunkatu, lokatu'	«Urrutiko banderak ikusi nahi nituen kordokatzen , palazio eta gazteluetan ibili gora eta behera.»	(17)
kukurruku eztul 'txakur-etzula, tos ferina'	«Nola sendatuko huke kukurruku eztula? »	(78)
lauhazka 'trostan, galapan'	«...zaldi gaineko lauhazka luzean ibili izanaren kariaz.»	(106)
lazgarri 'ikaragarria, beldurgarria'	«Egia esan behar bada, urte askotan han inguruan ez zen ezagutu halako gertaera lazgarririk .»	(31)
likits 'itsaskorra, zikina'	«...elizako atetik barrura sartu zen erretorea pauso azkarrez, ohi zuen usain likitsa atzean utzita.»	(100)
lixiba egin 'arropa garbitu'	«Batzuetan lixiba egin beharra egoten zen errekan.»	(42)
malkar 'aldatsa, aldapa'	«Zorrozpeko zelaietan edo Lepoko basoaren barnean, Maripotzuko ibarretan edo Kapelingo malkarretan .»	(42)



marrant 'hotzeria, katarroa'	«...zapi fin bat aurpegiaren gainean, marranta edo hagnetako mina bailuen.»	(111)
marru 'mua, orroa,oihua'	«Haien ahoetan, hitzik goxoenak zaunka ematen zuen gehienetan edo idiren baten marrua ...»	(23)
masta 'untzi-haga, tantaia'	«...bi mastako bergantin bat.»	(16)
men egin 'amore eman'	«...baina ezin izan ziola eutsi umeari lehorrean eta azkenean men egin beharra ukan zuela.»	(37)
mikatz 'mingotsa, garratza'	«...dena delako gizon mikatz hark gure ama adatsetik oratuta sukaldetik tatarrazka eta itxuragebeki zekarrela ikusi zuenean.»	(33)
morkots 'gaztainen eskola'	«...arantzazko morkotsa erakusten dakit batzuetan eta mami azukrezkoaren gozoa bestetan.»	(16)
orro 'burrumba, dunbota'	«...urrutiko trumoiaren orroa entzun duena.»	(16)
osin 'putzua, leizea'	«Sentipen berriak bizitzen hasia nintzen, beren sasi, osin , ozpin eta guzti.»	(56)
oskol 'azala, maskorra'	«Gaztainaren antzera, oskol askoduna naiz ni, kanpotik zorrotz eta barrutik ezti.»	(16)
otzan 'mantsoa, biguna'	«...mamu beldurgarri bihur daitekeen ardi otzana naiz ni.»	(16)
patu 'zoria, sinua'	«Oldartuko nintzen baita patuaren kontra ere.»	(18)
pinporta 'frutu aletxo, biribila'	«...ikusituen eskailerapeko nire ezkutaleku txiki hartatik begira, gurbitzaren pinportak bezala bi begiak jarrita.»	(33)
pitzatu 'arraildu, urratu'	«Z letra idatzirik zegoen leku bakoitzean ematen zuen papera pitzatu egiten zela.»	(11)
potxin 'potina, txalupa txikia'	«...hiruzpalau ontzi handizka lotzeko adinakoa eta potxinak eta txintxorroak ur gainean kulunkan.»	(70)
saldo 'oldea, partida'	«...gero eta handiagoa egin zen Prioreniako atarian bildurako jende saldoa .»	(107)
sen 'zentzua, izaera'	«Emakume ausart eta sen handikoa izan zen.»	(12)
setakeria 'temakeria, kasketaldia'	«Hendaiako auzapezaren beraren setakeriari esker, salbuespena egin zuten nirekin Akademia Txit Gorenekoek.»	(8)
so egin 'begiratu'	«...begiak zabaldu nituenean lau gizon ikusi nituen neure inguruan eta neuri so , erne.»	(47)
sutauts 'bolbora'	«...hainbeste pistola eta eskopeta sutautsez kargaturik ibili arren gure etxeko bazter guztietan.»	(31)
tatarrazka 'arrastaka'	«Gure ama adatsetik tatarrazka oratuta sukaldetik tatarrazka eta itxuragebeki zekarrela ikusi nuenean...»	(34)
tenore 'ordua'	«Etorriko zela mendekuaren tenorea .»	(49)
tentuz 'kontuz, ganoraz'	«...guztiz garrantzitsua balitz bezala sentitzen zuen, tentuz bizi beharrekoa balitz bezala gauzarik txikiena ere.»	(122)
triku 'kirikino, kirikolatza'	«Egun batean sagarroia edo trikua ere ikusi nuen erditzen.»	(95)
-tzeko lain '-tzeko beste / adina'	«...pare bat gurdi handi adinez betetzeko lain .»	(35)



ukendu 'pomada'	«...neuri egokitu baitzitzaidan beranduago ipotxaren ipur-masailak asun-urez eta ukenduz garbitzea eta sendatzea.»	(106)
unatu 'nekatua, gogaitua'	«Erditze bakoitzaren ostetik geratu ohi ginen biok (...) ahituak eta unatuak .»	(94)
urrikalgarri 'zoritarrekoa'	«...guztien artetik urrikalgarrietan urrikalgarri , besoetan haurrak negarrez zeramatzaten emazteak egin zitzaizkidan.»	(52)
uzkur 'lotsati, isil'	«...mundu guztiaren pasalekutik urrun eta uzkur , zakur gaixoen antzera baztertuta.»	(53)
xaxatu 'akuilatu, zirikatu'	«...hark xaxatutako otsoak baizik ez zirela izan plazan hain estuki hartu gintuztenak.»	(101)
xede 'helburua'	«Haraxe iristea eta Martinen alboan egotea nituen xede , txaluparen aitzakian»	(115)
zaputz 'muzin, kasurik ez'	«Itsuki zioten fedea... biztanleek... Egun hartan zaputz , ordea.»	(73)
zarpail 'saskela, arrunta'	«Gorrotoz begiratzen nion gizon zarpailari , piztia gaiztoari.»	(48)
zelatan 'espiatzen'	«Zain eta zelatan egoten nintzen erretorea nire sarean eta oso-osorik noiz harrapatuko.»	(127)
zerien (jario) 'isuri'	«...haiei zerien malkoetan ikusi ahal izan nuen beldurraren eta espantuaren amildegia...»	(98)
zurrun 'gogorra, trinkoa'	« Zurruna bihurtzen du ezti, gogorra bare eta hitsa alai.»	(7)
zurtz 'umezurtza'	«Zurtzetan zurtz nintzen erabat. Urrikalgarrietan urrikalgarri nintzen eta on egingo zidala esan nien.»	(65)